

**AB20\_076**

**I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.**

1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA.
2. KONTRATUAREN HELBURUA.
3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA.
  - 3.1 HASIERAKO AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.
4. PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA BEHARRAK, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA-BALDINTZAK.
  - 4.1 JARDUKETAREN HELBURUAK ETA BEHARRAK.
  - 4.2 JARDUKETA ESPARRUA.
  - 4.3 ERAIKUNTZA-BALDINTZAK.
  - 4.4 AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA.
5. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK.
  - 5.1 HIRIGINTZA JASANGARRIAREN IRIZPIDEAK TXERTATZEA.
  - 5.2 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN GARRANTZIA.
  - 5.3 HERRITAR GUZTIENTZAKO ESPAZIO PUBLIKO INKLUSIBOA SORTZEA
  - 5.4 ESPAZIOAREN BEREZKO BALIOA AZPIMARRATZEA.
  - 5.5 ERAIKUNTZA JASANGARRIAREN IRIZPIDEAK BARNERATZEA.
  - 5.6 PAISAIARI ETA HIRIGUNETIKO IKUSPEGIARI GARRANTZIA EMATEA.
6. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA.
  - 6.1 LEHENENGO FASEA: AZTERKETA LANA ETA AURRE-PROIEKTUA.
    - 6.1.1 INFORMAZIOA ETA AZTERKETA.
    - 6.1.2 HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINU OROKORRA ETA SAIOAK GAUZATZEA.
    - 6.1.3 AURREPROIEKTUA.
      - 6.1.3.1 AURREPROIEKTUAREN EDUKIA.
      - 6.1.3.2. AZTERKETA FASEKO DOKUMENTAZIOA ETA AURREPROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.
  - 6.2 BIGARREN FASEA: EXEKUZIO-PROIEKTUA.
    - 6.2.1 EXEKUZIO-PROIEKTUAREN EDUKIA.
    - 6.2.2. EXEKUZIO-PROIEKTUAK BETE BEHARREKO ARAUAK.
    - 6.2.3. PROIEKTUKO SALNEURRIAK ZENBATESTEN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA
    - 6.2.4. EXEKUZIO-PROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.
  - 6.3 HIRUGARREN FASEA: PROIEKTUAREN MOLDAKETA, ADMINISTRAZIO SEKTORIALEN BAIMENEI DAGOKIENEZ.
7. LAN TALDEA.
8. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA.
9. EGINDAKO LANEN JABETZA.

**II. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK.**

1. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOA.
2. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOAREN LUZERA.

**III. ERANSKINAK.**

- I. ERANSKINA: Tolosako hiri barruko zatian Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio-plana
- II. ERANSKINA: Tolosako Mugikortasun plana
- III. ERANSKINA: Tolosako espazio publikoan genero ikuspegia txertatzeko azterketa
- IV. ERANSKINA: Orubearen oin plano- egungo egoera (dwg)

**I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.**

## **1. KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUAREN HELBURUA.**

Plegu honen helburua da deskribatzea eta definitzea Tolosako Zumarditxikia espazio publikoaren berrantolaketarako exekuzio-proiektua idazteko zerbitzuaren lanak, eta, halaber, kontratua arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea.

## **2. KONTRATUAREN HELBURUA.**

Kontratuaren helburua da Tolosako Zumarditxikia espazio publikoaren berrantolaketarako **EXEKUZIO-PROIEKTUA IDAZTEKO ASISTENTZIA TEKNIKOAREN ZERBITZUAK EMATEA.**

- Lan hauek egin behar dira:

Goian aipatutako Exekuzio Proiektuaren idazketa lanak egitea. Zerbitzuaren parte izango da, era berean, asistentzia teknikoa ematea Udalarekin eta herritarrekin egin beharreko bileretan.

Exekuzio Proiektuaren idazketan sartzen dira, bereziki, Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta gainerako aplikazio arauetan ezarritakoak.

Behar izanez gero, kontratu honen zereginen artean honako hauek ere aurkitzen dira: proiektua aldatzea edota osagarri guztiak idaztea.

## **3. AURRETIAZKO INFORMAZIOA.**

### **3.1. HASIERAKO AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.**

Tolosako udalerriko Zumarditxikia deritzon espazio publikoaren berrantolaketa egin nahi da, gaur egun dauden lur gaineko aparkalekuak kendu eta parke erabilera ahalbidetuko duen diseinua garatuz. Hiritartze proiektuak Tolosako hiri barruko zatian Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio-plana eta Mugikortasun plana bateratu beharko ditu, biei erantzun beharko die.

Gaur egun, platano zuhaitzak (zumarrak ere badaude) aurkitu ditzakegu bertan, baina, bere izenak dioen bezala, lehen zumardia zen. Proiektu honen helburu nagusia da garai batetan leku honek izan zuen erabilera soziala berreskuratzea, gaur egungo beharretara egokituta, eta, bide batez, kontuan izanik Tolosako Mugikortasun planak ezartzen dituen baldintzak.

Lan eremuak kokapen estrategikoa dauka herrian: Oria Ibaiaren ertzean kokatuta dago, erdialdetik oso hurbil. Espazio hau herriko puntu askotatik ikusten da, eta herrian duen presentzia espazioak berak eskaini dezakeen erabileraz haragokoa da. Espazio libre honen berrantolaketak herritarrei era askotako erabilera eta sentsazioak eskaini diezazkieke. Lur-zoruak kota aldaketa esanguratsua dauka eta horrek erliebearekin jolastera gonbidatzen du. Ingurumenari dagokionez, bertan dauden zuhaitzen interesa aztertu beharko da.

Lan eremua Oria ibaiaren ertzean dago, lehentasunezko fluxu gune barruan eta 100 urteko itzulketa-epeldiko uholde arriskuarekin. Proiektuak Ur Agentziaren baimena eskuratu beharko da, besteak beste.

I, II eta III. eranskinak ikusi: Tolosako hiri barruko zatian Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio-plana, Tolosako Mugikortasun plana eta Tolosako espazio publikoan genero ikuspegia txertatzeko azterketa.

## **4. PROIEKTUAREN BEHARRAK ETA HELBURUAK, ESPARRUA, BETEBEHARRAK ETA ERAIKUNTZA-BALDINTZAK.**

### **4.1. JARDUKETAREN BEHARRAK ETA HELBURUAK.**


- Tolosako hiri barruko zatian Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio-planean eta Tolosako Mugikortasun planean ezarritakoa bateratzen duen hiritartze proiektua.
- Espazio publiko honek Tolosako herrian erreferentziala izan beharko du, bai erabilera aldetik, aisialdirako eremua eskainiz, bai herriko beste edozein puntutatik ematen duen ikuspegia hobetuz.
- Parke erabilera nagusia duen espazio publikoa, bertan era askotako azpieroabilera eskaini ditzakeena.
- Bidegorria, bi zubien arteko komunikazioa.
- Ingurumenarekiko errespetua duen diseinua.
- Oria ibaiaren ertzari balorea gehitu; ibai ertzeko pasealekua, hegazti espezieen habitata aztertu, begetazioa mantendu ala hobetu, ibaira jaisteko aukera aztertu...
- Existitzen den kota aldaketa nabarmenez baliatuz, espazio aberatsa eta bikaina diseinatu.
- Parke inklusiboa eta irisgarria.
- Ibaiondo kalearen hiritartzea berritu, parke berria integratuz.


### **4.2. JARDUKETA ESPARRUA.**

Tolosako Zumarditxikia deritzon espazio publikoaren berrantolaketa da. Lan eremuak Zumarditxikiko aparkalekua eta hura ekialdetik mugatzen duen kalea hartzen ditu. Lan eremuak 7.000 m<sup>2</sup> inguru dauzka, plantan 200 m-ko luzera, eta zabalera aldakorra duen lurzorua, hain zuzen ere. Zumarditxikiko aparkalekuak 4.600 m<sup>2</sup> inguru dauzka, errepidearekiko beste kota batean dago eta bien arteko muga harresi batek adierazten du. Mendebaldetik, Oria ibaiak mugatzen du orubea, eta ipar zein hego aldetik, Naparzubiak eta Zubiberriak, hurrenez hurren.

### **4.3. ERAIKUNTZA BALDINTZAK.**

Dokumentu honetan ezarritako baldintzak edo premisak Tolosako hiri barruko zatian Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio-planean eta Tolosako Mugikortasun planean ondorioztatutakoak dira; hala, bi dokumentuetako ondorioak bateratzea lortu beharko da.





Plegu tekniko honetan ezarritako baldintzak erabiliko dira oinarritzko proiektuaren eta exekuzio-proiektuaren oinarri bezala. Dena den, exekuzio-proiektuak prozesu honetako azterketa fasean sortutako baldintza eta beharrei erantzun beharko die. Legedian agertzen diren alde teknikoak betetzen dituzten aldaketak onargarriak izango dira, dagokion justifikazioa dela medio beti.

Beraz, proiektuak baldintza hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Orubeak daukan kota aldaketaz baliatu behar du.
- Espazio librea errepidetik ibairainoko trantsizioa: eremu hiritartutik naturalago batera.
- Eremua ipar- hego norabidean zeharkatzen duen bidegorria antolatu behar da.
- Bi zubien arteko oinezkoentzako konexioa /lotura.
- Autobus geralekua.
- Ibaira jaisteko aukera eta beharra aztertu behar dira, Ur Agentziaren baldintzak betez.
- Ibaiaren gaineko plataformak planteatzeko aukera (ikus I. eranskina), Ur Agentziaren baldintzak betez.
- Ingurumenari dagokionez, Oria ibaiertzean dauden hegaztiei eragingo liekeen kaltea aztertu beharko da.
- Proiektuak Ur Agentziaren obra baimena eskuratu beharko du.
- Obra faseko baldintza: ibilgailuen eta oinezkoen pasoa ezingo da eten.

Obra egin bitartean, espazioa partzialki funtzionamenduan egon beharko du, hau da, ibilgailuen eta oinezkoen pasoa bermatu beharko da. Horretarako, Udaltzaingoko arduradunarekin adostutako trafikoaren behin-behineko berrantolaketa planifikatuko da eta exekuzio-proiektuan jasoko da.

#### **4.4. AURREIKUSITAKO OBRAREN AURREKONTUA.**

Zumarditxikia izeneko eremua berreskuratzeko obrarako Exekuzio Materialeko Aurrekontu hau **zenbatetsi** da, gutxi gorabehera: **1.260.000,00 euro**. Beraz, obraren zenbatekoa, guztira, 1.814.274,00 euro izango da, BEZa barne (% 21).

## **5. JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK.**

Proiektua garatzeko orduan, honako irizpide nagusi hauetan oinarrituko da lana:

### **5.1. HIRIGINTZA JASANGARRIAREN IRIZPIDEAK TXERTATZEA.**

Hirigintza jasangarriaren helburu nagusien artean dago artifizializatutako espazioak naturalago bilakatzea; hala, hiri-traman bertan berdegunea sortzean, herritarra oinez bertaratu daiteke, kotxearen beharrik gabe. Horretaz gain, Oria ibaiaren ertza berreskuratzeak elementu honen balioa handitzea dakar. Hori oinarrizkoa da hiri-egiturarako eta gizarte eta ingurumen-iraunkortasunerako. Proposamenak lantzerakoan, zuhaitzek eta begetazioak pisu handia izan beharko dute. Interesa duten zuhaitzak landatuko/mantenduko dira eta ibai ertzeko hegaztien habitat-a kontuan hartuko da.

### **5.2. HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN GARRANTZIA.**

Lan honetarako ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea, haiek baitira herrian bizi direnak, espazioa erabiltzen dutenak. Tolosa hiri barruko Oria ibaiaren Akzio plana eta Mugikortasun plana garatzeko prozesuetan herritarren iritzia kontuan hartu da jada. Horretaz gain, espazio publiko honi buruzko parte hartze prozesua egingo da espresuki, aldez aurretik egindako azterketa horiek bateratzeko beharra aurreikusten baita. Hala, espazioa berrantolatzeko ekarpenak jasotzeko saio bat eta azterketa fasearen amaierako proposamena azaltzeko bigarren saio bat planteatzen da gutxienez.

Parte-hartze prozesuaren aurkezpenerako eta dinamiketarako beharrezko materiala (laburpenak, txostenak, planoak, argazkiak, komunikazio euskarriak, e.a.) ere prestatu beharko da.

### **5.3 HERRITAR GUZTIENTZAKO ESPAZIO PUBLIKO INKLUSIBOA SORTZEA**

Espazio libre hau herritar guztiak pertsonalki zein sozialki garatzeko baliabide gisa planteatzen da. Denek izan behar dute aulera beren kabuz eremuko edozein gunera heltzeko eta bertan gozatzeko, hau da, denek erabili ahal izango dute espazio librea bere osotasunean, duten adina, zailtasun fisiko zein psikologiko, nazionalitate, edota kultura dutela. Espazio inklusiboa izango da.

Herritar guztiontzat da eta dibertsitateari erantzuten dio, indibidualtasunari zein kolektibitateari, lagunarteari zein senitartekoari erantzuna emanez. Berdintasunean/ezberdintasunetan oinarrituz, herritarren beharrezanez erantzuteko tresna gisa ulertzen da:

- Espazio libre eraginkorra izan dadin lortzea: herritar bakoitzarentzat baliabide esanguratsua eskaintzea.
- Herritar bakoitzaren naturarekiko harremana areagotuko duena.
- Gizarte ekintzak antolatzeko aproposa den espazioa (gune bat): azokak, kontzertuak, kaleko antzerkia,...
- Irisgarritasuna bermatuko duena.
- Hainbat erabileratarako azpiguneak sortu ahalko dira, espazio libre osoaren izaera bateratu baten baitan.
- Genero perspektibari dagokionez, eremu segurua izan beharko du. Horretaz gain, emakume eta gizonen arteko aukera eta eskubide berdintasuna sustatu beharko du; horretarako, ezinbestekoa da genero ikuspegia txertatzea prozesuaren fase guztietan.
- Hizkuntzari dagokionez ere bereziki aztertuko da, bai toponimia, bai seinaleetika arloan.

#### **5.4. ESPAZIOAREN BEREZKO BALIOA AZPIMARRATZEA.**

Hiritartze lan honen xede den eremua Zumarditxikia izenarekin ezagutzen da. Izenaren jatorria eta historian zehar bertan gertatu izan direnak aztertu beharko dira; antzinako espazioa berreskuratu nahi da. Horretaz gain, herritarrek erreferentzia gisa hartu dute eta kokapen estrategikoa du, Alde Zaharraren aurrean kokatutako espazio publiko zabala, non natura eta ibaiarekiko erlazioa nagusi izango den. Hirigune historikoari arnasa eskaintzen dion birika izango da. Kokapenaren berezko elementuek potentzial handia daukate, eta, hortaz, haien balioa handituko duen proposamena bilatzen da. Egungo aparkaleku erabilera ekarri duen degradazioa alde batera utzi eta naturara hurbilduko gaituen espazio publikoa izango da, erabiltzaileentzako gune bereziak, esanguratsuak eta bakarrak sortuz.

Espazioaren berezko balioa azpimarratuko duen proposamena bilatzen da, itxura berritzailearekin modu zuhur batean konbinatuz.

#### **5.5. ERAIKUNTZA JASANGARRIAREN IRIZPIDEAK BARNERATZEA**

Eraikuntza jasangarria, arkitektura iraunkorra edo ekologikoa, ingurumenarekin errespetu handiz jokatzeko duena da, eta energiaren erabilpen iraunkorra egiten du. Besteak beste, energia berriztagarrietan ikertzerako behar du, material batzuek naturan duten eragina aztertzearekin batera. Beraz, proiektuan aurreikusi beharko da material ekologikoak eta erraz birziklatzekoak erabiltzea, alegia, material jasangarriak erabiltzea.

Eraikuntza jasangarriak honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan:

- Baliabideen kontserbazioa.
- Baliabideen berrerabilpena.
- Eraikuntzarako material berriztagarrien erabilpena.
- Materialen bizi-zikloa kontuan izanda, hondakinen aurrezaintza.
- Urbanizazioan eta eraikuntzan konforta areagotzea.
- Ingurumenaren babesa.
- Eraikuntzetan inguru ez toxikoa sustatzea.

#### **5.6. PAISAIARI ETA HIRIGUNETIKO IKUSPEGIARI GARRANTZIA EMATEA**

Zumarditxikia Oria ibaiaren ertzean kokatuta dago eta horrek balio berezia eskaintzen dio: alde batetik, ibaiarekiko erlazioaz baliatzeko aukera ematen diolako, eta, bestetik, ibaiaren bi ertzetatik ikusten den espazio libre bat delako, egun, urrutitik, zuhaitz- begetazio-masa bezala antzematen dena. Natura herrigunean barnerratzeko gunea da. Alde Zaharraren birika bezala uler daiteke.

Hiriguneko traman integratutako espazioa diseinatu behar da. Bertan proposatutako guneak erabilera aldetik erosoak eta baliagarriak izateaz gain, herriko beste edozein puntutatik ikustean irudi erakargarri bat eskaini beharko du, ez bakarrik bertaratzera gonbidatzen zaituena, baizik eta urrutiko ikuspegi harmonia- edertasun sentazioa ere eragingo duena; hau da, hiri traman oreka eskaintzearekin batera, espazio esanguratsua sortzea bilatzen da.

## **6. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA: METODOLOGIA ETA EDUKIA.**

### **6.1. LEHENENGO FASEA: AZTERKETA LANA ETA AURREPROIEKTUA.**

#### **6.1.1. INFORMAZIOA ETA AZTERKETA.**

Fase honetan egin beharreko lanak hainbat egoera eta arazori buruzko azterketa teknikoak barneratzen ditu; hala, Zumarditxikia espazio publiko berria gauzatu ahal izateko, hainbat erabaki hartzeko azterketa egingo da, kontuan hartuz Tolosako Mugikortasun plana eta Tolosa hiri barruko Oria ibaiaren Akzio planean ondorioztatutakoak. Eremu hau ingurumenarekiko bereziki sentikor agertzen zaigu, Oria ibaiaren ertzean kokatuta dagoen heinean. Proposamena lantzeko orduan, bideragarritasuna Ur Agentziarekin kontrastatu beharko da. Hirigintza Saileko teknikoen eta herritarren irizpideak ere kontuan hartuko dira. Horretarako, talde idazlearen eta agente horien arteko bilerak antolatuko dira. Arkitekto adjudikaziodunak eguneratu, bateratu, osatu eta sakondu egin beharko du bi plan horietan egindako azterketak.

Besteak beste, honako hauek aztertu beharko dira:

- Aurretik egindako parte-hartze prozesuak:
  - Tolosa hiri barruko Oria ibaiaren Akzio plana.
  - Tolosako Mugikortasun plana.
  - Tolosako espazio publikoan genero ikuspegia txertatzeko azterketa.
- Parte-hartze prozesua: fase honetan, herritarren ekarpenak jasotzeko saio bat egingo da. Fase honen amaieran, bigarren saioa egin beharko da, emaitza azaltzeko.
- Orubeak berak eskaintzen dituen baliabideen azterketa: erliebea, Oria ibaia, errepidea, oinezkoen ibilbideak, zuhaitzak,...
- Proposamena errealitate fisikora egokitu dadin, orubearen egungo egoeraren jasotze topografikoa egingo da.
- Bestaldeko ibaiertzaren ikuspegia eta paisaiaren eragina.
- Espazio publikoaren eredia landu behar da, era askotako erabiltzaileentzako aproposa izan dadin.
- Tolosako herrigunera egokitutako espazioa.
- Irigarritasuna eta espazio inklusiboa.
- Ingurumenari dagokion azterketa (ebaluazioa): zuhaitzak, ibaiertzaren berreskurapena, egungo hegaztien habitata,...erlaketak sortu ditzakeen kalteen eta onuren zerrendatze xehatua.
- Zumarditxikia espazioaren azterketa historikoa.
- Ur Agentziaren irizpideak argitzea, ondoren dagokion baimena eskuratzea bideratzeko. Azterketa hidraulikoa behar izanez gero (proposamenaren arabera izango dena), azterketa fase honetan egin beharko da.
- Ibaira jaisteko aukerak eta beharrak aztertu.

### **6.1.2. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREN DISEINU OROKORRA ETA SAIOAK GAUZATZEA.**

Parte hartzeko prozesu osoaren diseinua eta garapena ere barneratuko da fase honetan. Beraz, eragile eta herritarrak identifikatuko dira, prozesuan parte hartzeko, eta gutxienez 2 saioen diseinua eta metodologia orokorra landuko da.

Saioei begira, komunikazio euskarriak, eta informazioaren eta azterketa dokumentuaren laburpenak prestatuko dira; ondoren, saioen metodologia zehaztu eta difusioa egingo da, eta parte-hartze prozesuko saioak gauzatu dira. Bi saio planteatzen dira eta azterketa fasean egingo dira. Lehenengo saioa herritarren ekarpenak jasotzeko izango da, eta bigarren saioa azterketa lana egin ondoren proposamenaren garapenaren eta aurreproiektuaren edo alternatiben aurkezpenera egitera zuzenduta egongo da. Prozesuan jasotakoak txosten batean bilduko dira eta proiektua garatzeko erabiliko dira. Metodologia horretan zehaztuko da saioak zein fasetan egingo diren eta saioen ondorioak noiz eta nola aurkeztuko diren.

### **6.1.3. AURREPROIEKTUA.**

#### **6.1.3.1 AURREPROIEKTUAREN EDUKIA.**

Adjudikaziodunak aurreproiektua idatzi beharko du; tekniko eskudunek (arkitektoa eta bide-ingeniarria) izenpetuta egon behar du, eta ez dagokio elkargo profesionalaren bisaturik.

Aurreproiektua idatzi behar da betiere kalterik egin gabe indarrean dagoen arloko legeriak xedatutakoari, eta nahitaez agiri osagarri hauekin aurkeztu behar da:

- a) Memoria: proiektuaren aurrekariak eta xedea, aplikatu beharreko araudia, proposamenaren deskribapena. Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekiko egokitzapena eta aplikagarri gertatzen diren beste lege-xedapenetan ezarritakoa betetzeari buruzkoa. Plan Hidrologikoari (Ur Agentziaren baldintzak) eta Ingurumenari buruzko atala ere egongo da.
- b) Aurrekontuaren laburpena (aurreproiektu mailan): atalak adierazita.
- c) Planoak (aurreproiektu mailan): kokapena, plantak (kotadunak eta azalerekin), ebaketak (kotadunak), irisgarritasun legearen betetzea adierazita.
- d) Orubearen jasotze topografikoa (egungo egoera).
- e) Proposamenen infografiak.

Oro har, proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute programa proposamena, espazioaren funtzionamendua eta diseinua/izaera modu argian irudikatzeko, gutxienezko aplikazio-irizpideei jarraikiz, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera. Aurreproiektuak bermatu beharko du proposatutakoa exekuzio-proiektuan garatzea posible izango dela, eta entitate txikiko aldaketak onargarriak izango dira.

#### **6.1.3.2.- AZTERKETA FASEKO DOKUMENTAZIOA ETA AURREPROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.**

Dokumentazio guztia erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu behar da, eta paperean eta formatu digitalean (CDa/pendrivea) ere bai. 3 kopia aurkeztuko dira.

Agiri guztiak modu ordenatu eta zehatzean aurkeztuko dira, idazteko eta marrazteko kalitatetik oneneko paperean, eta neurritz kanpoko edo erabiltzen zailak izan daitezkeen tamainako planoak ekidinda.

Dokumentazio idatzia eta azterketa osagarriak formatu editagarrian aurkeztu behar dira (Word, Excel edo



azterketa horiek idatzi, erabili eta/edo aztertzeko beharrezkoa den beste edozein formatutan) eta PDF formatuan ere bai.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian (dwg) eta PDF formatuan aurkeztu behar da.

Dokumentu teknikoetako edukiek euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute, honako hauek behintzat:

- Informazioa eta Azterketaren Txostena.
- Herritarrek Parte Hartzeko Prozesuaren Metodologia dokumentua eta parte-hartze saioren memoria.
- Aurreproiektu mailako alternatibak:
  - memoria orokorra
  - planoak
  - proposatutako alternatiba bakoitzari dagokion aurrekontuaren laburpena
  - Infografiak

Hizkuntza ez sexista erabili behar da dokumentazio guztian, indarreko xedapen eta araudiei jarraikiz.

**Fase honek 3 HILABETEKO IRAUPENA izango du: kontratua sinatu eta hurrengo egunean hasiko da eta dokumentua aurkeztutakoan bukatuko da. Honako hauek osatuko dute lehen faseko txosten hau: Informazioa eta Azterketaren Txostena, Herritarrek Parte Hartzeko Prozesuaren Metodologia dokumentua eta parte hartze saioren memoria eta horietan oinarritutako **AURREPROIEKTU MAILAKO ALTERNATIBAK** dokumentua.**

## **6.2. BIGARREN FASEA: EXEKUZIO-PROIEKTUA.**

### **6.2.1 EXEKUZIO-PROIEKTUAREN EDUKIA.**

Adjudikaziodunak exekuzio-proiektua idatzi beharko du; tekniko eskudunek (arkitektoa eta bide-ingeniaria) izenpetuta egon behar du eta dagokion elkargo profesionalak bisatuta. Fase honetan, teknikoki garatuko da lehenengo faseko alternatibetatik hautatutako proposamena; alegia, obra gauzatzea ahalbidetuko duen dokumentua da.

Proiektua idatzi behar da betiere kalterik egin gabe indarrean dagoen arloko legeriak eta EKTk xedatutakoari, eta nahitaez agiri osagarri hauekin aurkeztu behar da:

- a) Memoria: proiektuaren aurrekariak eta xedea, aplikatu beharreko araudia, obraren deskribapena, obraren egikaritzaren deskribapena, obraren egiteko modua aztertuz eta deskribatuz. Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekiko egokitzapena eta aplikagarri gertatzen diren beste lege-xedapenetan xedatutakoa betetzeari buruzkoa. Egitura eta Instalazio guztien azterketa, kalkulua eta diseinua.
- b) EKTren justifikazioa.
- c) Irisgarritasun-legearen justifikazioa.
- d) Baldintza teknikoaren plegua: baldintza orokorrak, obraren deskribapenak, materialen ezaugarriak, obraren egikaritza eta obraren neurketa eta ordainketa.
- e) Aurrekontua: neurketak, prezioen koadroak eta aurrekontua osoa eta laburtua.
- f) Planoak: kokapena, oin-plantak, ebaketak, instalazioen planoak, xehetasun planoak eta abar.
- g) Espazio publikoaren infografiak (proposamena).
- h) Eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko azterketa.
- i) Kalitatea kontrolatzeko programa.

- j) Segurtasun- eta osasun-azterketa oinarritzakoa.
- k) Lanak garatzeko programa edo obra-plana.
- l) Instalazioen proiektu espezifikokoak, beharrezkoak direnak, indarrean dagoen araudiari lotuak eta haiek legezatzeko eta abian jartzeko derrigorrezkoak diren oniritziekin (elektrizitate-instalazioa; instalazio hidraulikoak eta saneamendua; argiztapen-instalazioak, espazioaren luminoteknia-azterketarekin batera).
- m) Egitura kalkuluak: espazioan diseinatuko diren elementuek egitura kalkulua beharko balute, horren txostena barne dago (eustormak, pasarela, ibai gaineko hegala, estalkia,...).
- n) Hiri-altzarien proposamena eta errotulazioari dagokion txostena.
- ñ) Berariazko erregelamenduen menpe dauden instalazioen kasuan (instalazio elektrikoa eta abar) aurkeztu behar da haietako bakoitzari dagokion baimena, eta, kasu bakoitzean, industria-segurtasunari buruzko araudiek zerbitzua abian jartzeko xedatzen duten agiria.
- o) Azterketa hidraulikoa, beharko balitz (proposamenaren arabera izango dena).

Oro har, proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute obra eta obra-prozesua modu argian eta zehatzean irudikatzeko, gutxienezko aplikazio-irizpideei jarraikiz, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera.

Proiektua egiten denean edo osatzen denean proiektu partzialen bidez edo beste agiri tekniko batzuen bidez, adibidez, teknologia espezifikoei edo eraikineko instalazioei buruzkoekin, haien artean gordeko da beharrezkoa den koordinazioa.

### **6.2.2.- EXEKUZIO-PROIEKTUAK BETE BEHARREKO ARAUAK.**

Proiektu teknikoetako agiriei eta kontratuaren gainerako agiriei baldintza batzuk bete beharko dituzte, indarrean dagoen legeriak une oro eskatzen dituenak eta, betiere, Udaletxean aurkezten diren unean nahitaez bete beharrekoak. Besteak beste:

- Indarrean dagoen hirigintza-planeamendua.
- Indarrean dauden udal ordenantzak.
- Irigarritasun legea, indarrean dagoena.
- Soinu-kutsadurari buruz indarrean dagoen legeria eta araudia.
- Erregelamendu Elektroteknikoa, indarrean dagoena.
- Segurtasun eta osasun-arloari buruz indarrean dagoen legeria eta araudia eta, halaber, gune publikoetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irigarritasun baldintzei buruzkoa.
- Plan hidrologikoa eta Ur Agentziak adierazitako araudia eta baldintzak.
- Indarrean dagoen gainerako araudia, nahitaez bete beharrekoa.

### **6.2.3. PROIEKTUKO SALNEURRIAK ZENBATESTEN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA**

Exekuzio proiektuko salneurriak zenbatesteko erabilitako irizpidea 2020ko Sektore publikoko kontratuen legearen 102. artikuluan xedatutakoa da. Horrela, bermatu nahi da lizitazio-prezioaren kalkuluan hitzarmen kolektiboetan xedatutakoa kontuan hartu dela. Aurrekontuan unitate bakoitzeko salneurri dagozkien xehatutako prezioak(\*) agertuko dira, hitzarmen kolektiboa beteko delako justifikazio gisa.

Unitate bakoitzeko salneurriak finkatzeko, unitatearen osaera aztertu da 3 atal hauei dagokienez: esku lana,

makinak eta materiala.

Horrela, unitate bakoitzeko salneurria lortzeko jarraitutako prozedura hau izan da:

Hasteko, xehatutako prezioak(\*) erabili dira.

Gipuzkoako eraikuntzaren sektoreko eskulan kostua biderkatu da unitatea gauzatzeko beharrezkoa den errendimenduarekin, unitatea bukatzeko eskulan taldeak behar duen denbora.

Era berean, unitatea gauzatzeko erabili beharreko makinaren salneurria biderkatu da elementua bukatzeko beharrezkoa den denborarekin.

*Ohar garrantzitsua: proiektuan aukeratutako errendimenduak proiektugileak ezarritakoak dira. Horiek nabarmen aldatu daitezke enpresa bakoitzaren ezaugarri eta baliabideen arabera. Izatez, ezinbestean, enpresa bakoitzaren eskaintzek definituko dituzte balio horiek.*

Aurreko bi elementuez gain, salneurria osatzeko, unitate bakoitzeko materialaren salneurria aztertu eta neurtu da. Datu horiek biderkatuta unitate bakoitzeko salneurrian materialen kostua finkatu da.

Bukatzeko, unitateko salneurriak osatzeko, xehatutako eskulan, material eta makinaria kostuak batu dira.

Zalantzak argitze aldera, eta argibide modura, Gipuzkoako eraikuntzaren sektoreko hitzarmenaren arabera, eskulanaren orduko kostu hauek hartzen dira kontuan unitateko prezioak zehazteko:

- Arduraduna: 31,59 €/h
- Langileburua: 29,79 €/h
- Ofiziala: 28,32 €/h
- Peoi arrunta: 25,36 €/h

#### **6.2.4.- EXEKUZIO-PROIEKTUA AURKEZTEKO FORMATUA.**

Dokumentazio guztia erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu behar da, eta paperean eta formatu digitalean (CDa/pendrivea) ere bai. 3 kopia aurkeztuko dira.

Agiri guztiak modu ordenatu eta zehatzean aurkeztuko dira, idazteko eta marrazteko kalitaterik oneneko paperean, eta neurritz kanpoko edo erabiltzen zailak izan daitezkeen tamainako planoak ekidinda.

Dokumentazio idatzia eta azterketa osagarriak formatu editagarrian aurkeztu behar dira (Word, Excel edo azterketa horiek idatzi, erabili eta/edo aztertze beharrezkoa den beste edozein formatutan) eta PDF formatuan ere bai.

Dokumentazio grafikoa formatu editagarrian (dwg) eta PDF formatuan aurkeztu behar da.

Dokumentu teknikoetako edukiek euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dute, honako hauek behintzat:

- memoria orokorra
- planoak
- aurrekontuaren laburpena

Hizkuntza ez sexista erabili behar da dokumentazio guztian, indarreko xedapen eta araudiei jarraikiz.

**Fase honek 3 HILABETEKO IRAUPENA izango du: Udalak lehenengo faseko alternatibetatik bat onartu ondorengo jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da eta dokumentua aurkeztutakoan bukatuko da. Honako honek osatuko du bigarren faseko aurkezpena: lehenengo faseko alternatibetatik hautatutako proposamena teknikoki garatuko duen EXEKUZIO-PROIEKTUA**

dokumentua.

### **6.3. HIRUGARREN FASEA: PROIEKTUAREN MOLDAKETA, ADMINISTRAZIO SEKTORIALEN BAIMENEI DAGOKIENEZ.**

Behin Udalak aurreproiektu mailako alternatiba bat onartuta, Udalak dagokion administrazio sektorialetan obra baimen eskaera egingo du. Exekuzio proiektua garatzen den bitartean, hau da, 2. fasea amaitu aurretik ez balira administrazio sektorialen baimenak eskuratuko, 3. fasea burutu beharko litzateke.

**Fase honek 1 HILABETEKO IRAUPENA izango du: administrazio sektorialen (Ur Agentzia, bereziki) baimen eskaeraren ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean hasiko da eta dokumentua aurkeztutakoan bukatuko da. Honako honek osatuko du hirugarren faseko aurkezpena: exekuzio proiektuaren moldaketa, administrazio sektorialen ebazpenetan ezarritako baldintzei egokituta. Administrazio sektorialen ebazpena aldekoa izango balitz, udal txostena baten bitartez, fase honi bukaera emango litzaioke.**

### **7. LAN TALDEA.**

Fase guztietan, lan-taldea honako teknikari hauek osatu beharko dute, gutxienez:

1. Arkitekto bat: lan taldearen zuzendaria, Eraikingintza Antolatze azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 12. artikularen arabera, PROIEKTUAK SINATZEAZ arduratuko dena. Gutxienez, 2 hiritartze-proiektu sinatu izana eta mota horretako bi obra zuzendu izana justifikatu beharko da.

2. Bide, ubide eta portuetako ingeniaria bat. Berari dagozkion proiektuaren atalak sinatzeaz arduratuko da. Gutxienez, 2 proiektu sinatu izana eta bi obra zuzendu izana justifikatu beharko da.

3. Parte-hartze prozesurako dinamizatzaile bat, parte-hartze prozesuetako saioetan aditua eta esperientziaduna. Arkitektura/hirigintzako parte-hartze prozesu batean gutxienez dinamizatzaile moduan lan egin izana justifikatu beharko du. Euskara Gaitasun Agiria (EGA/Euskarako 3. hizkuntz eskakizuna eskuratuta eduki beharko du (lan osoaren fase batean soilik hartzen duenez parte, azpikontratatu daiteke).

Teknikari berak goian zehaztutako funtzio bat baino gehiago bete ahal izango du arlo bakoitzari dagozkion titulazioak eta esperientzia ziurtatzen baditu.

Obra garaian edozein pertsonal aldaketa edo gehiketa egiteko, aurretik udal zerbitzu teknikoen onarpena beharko da.

Horietaz gain, lehiaketan baloratuko da lan-taldean honako titulazio hau daukan teknikaria izatea:

- Eraikuntza Jasangarriko alorreko master ala graduondoa
- Paisaigintza masterra – homologatua
- Paisaigintza alorreko goi-mailako teknikaria
- Inguru giro teknikaria
- Esperientzia daukan dinamizatzailea izatea

### **8. UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA.**

Adjudikaziodunari lana aurrera eramateko baliagarria izan dakioken informaziorako sarbidea emango zaio, Udal Artxiboan dagoena, eta zehazki:

1. Tolosako hiri barruko zatian Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio-plana
2. Tolosako Mugikortasun plana.
3. Tolosako espazio publikoan genero ikuspegia txertatzeko azterketa.
4. Orubearen egungo egoeraren oinplanoa, formatu editagarrian (dwg).

## **9. EGINDAKO LANEN JABETZA.**

Kontratutako zerbitzuen emaitza, osorik edo edozein fasetan, Udalarena da; beraz, noiznahi eska ditzake emaitza hori osatzen duten dokumentuak eta datuak.

Adjudikaziodunaren betebeharra da Udalari ematea datu eta kalkulu guztiak eta Udala informatzea lanak egikaritzeko erabilitako prozedurei eta prozesuei buruz. Kontratuari atxikitako ustiapen-eskubide guztiak Udalarenak dira, ez beste inorenak.

## **II. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK.**

### **1. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOA.**

Enpresa lizitatuak agiri bat aurkeztu beharko du, "Memoria tekniko" izenekoa, behar bezala zehaztua eta dagokion aurkibidearekin.

Memoria horretan, baloratu behar diren alderdiak zehaztuko dira, eman behar den zerbitzuaren egokitasuna baloratzeko behar besteko edukia izan beharko du, eta atal hauen arabera egin beharko da:

#### **1. Proiektuaren aurreazterketa.**

Lizitatuak beharren eta baldintzen azterketa eta hausnarketa xehea egin izana erakutsi beharko dute.

Bereziki, Tolosako Mugikortasun plana eta Tolosa hiri barruko Oria ibaiaren Akzio plana bateratzeak sortu ditzakeen arazo, kezka eta kontraesanen hausnarketa; azterketaren egokitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira, pleguetan adierazitakoaren ildotik:

- a) Tolosako Mugikortasun plana eta Tolosa hiri barruko Oria ibaiaren Akzio plana bateratzeak sortu ditzakeen arazo, kezka eta kontraesanen hausnarketa.
- b) Zumarditxikia eremuaren azterketa historikoa (itxura eta erabilerari dagokionez).
- c) Espazio publiko hau erreferentzia Tolosako herrian: bertan egotea erakargarria izateko ideiak: parke erabilera nagusia duen espazio publikoa, bertan era askotako azpialerak eskaini ditzakeena.
- d) Ingurumen azterketa, naturarekiko harremana eta Oria ibaiaren ertzari balorea gehitzeko aukerak: ibai ertzeko pasealekua, hegazti espezieen habitata aztertu, begetazioa mantendu ala hobetu, ...
- e) Paisaia: herriko beste puntuetatik begiratuta ematen duen ikuspegia hobetu, erakargarri bilakatu, eta eremuan bertan esentzia eta diseinu erakargarria izan ditzala.
- f) Existitzen den kota aldaketa nabarmena aprobetxatzeko aukerak.
- g) Aurreko puntu guztiak bateratzen dituen ondorioa.

Hau egin beharko da: goiko eskema jarraituko duen memoria bat (krokisak edo beste eredu batzuen argazkiak gehitu daitezke). Horretarako, plegu honetan ezarritako oinarriak izango dira kontuan (gehenez DIN-A4ko 6 orri, bi aldeetatik).

#### **2. Lana gauzatzeko kronograma zehatza, faseak zehaztuta.**

Lizitatuak azalduko dute nola antolatuko duten talde tekniko kontratua exekutatzeko eta nola egingo den proiektuaren eta obraren jarraipena Udalarekin.

Proiektuaren garapeneren egokitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira.

Hauxe aurkeztu beharko da: lan programa, kronograma edo Gantt diagrama bat, epeak eta lanak gauzatzeko denbora aurreikusita. Prozesua kronograman zehazteaz gain, memoria batean ere azalduko da (gehienez DIN-A4ko 3 orri, bi aldeetatik).

### **3. Herritarren parte-hartze prozesuaren egitarauaren proposamena.**

Lizitatuzaileek azalduko dute nola gauzatuko luketen "Herritarren parte-hartze prozesua", egitarauan honako hau adieraziz, gutxienez: saioen kronograma (proiektua garatzeko faseekin lotuta), proposatutako prozesuaren deskribapena, komunikazio plan baten oinarriak, fase bakoitzaren helburua eta lan tresnak zein giza baliabideak zehaztuz.

Honako hauek baloratuko dira:

- \* Herritarrekiko hartu-emanaren ahalbidetzea eta bermatzea.
- \* Saioak antolatzeko daten eta ordutegiaren malgutasuna, eta saio presentzialen osagarri izan litezkeen bestelako bitartekoen edo online bidezko euskarrien proposamena.
- \* Parte-hartze prozesuko saioetan teknikariak (arkitektoa edo bide-ingeniaria) egotea.
- \* Saio dinamikoak eta eraginkorrak antolatzeko metodologiak.

Hauxe aurkeztu beharko da: kronograma bat, herritarren parte-hartze prozesua zehaztuta duena, eta memoria bat, epeak eta lanak gauzatzeko denbora aurreikusita (gehienez DIN-A4ko 3 orri, bi aldeetara).

## **2. LIZITAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO MEMORIA TEKNIKOAREN LUZERA.**

Gehienez izan behar ditu DIN-A4ko 13 orri, bi aldeetatik, azala-aurkibidea eta eranskinak barne.

**Ez dira baloratuko memoria teknikoak, baldin eta ez badituzte errespetatzen oso-osorik edukia eta klausula teknikoaren pleguan adierazitako atalen ordena.**

**Aurkeztutako memoria teknikoak esandako orri kopurua gainditzen badu, atal horretako balorazio irizpidea 0 puntu izango da.**